



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko urriaren 16an

84 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

C SAILA:

Planak, Komunikazioak eta Programak:

—Tabakoari buruzko Foru Plana (4. or.).
—Nafarroako Gobernuaren jakinarazpena, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2000 urteko eztabaida egin dadin (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

—Jabeldura, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua, Unibertsitate Publikoko tasetan ehunekotan egin daitekeen igoerarik handiena egiteko arrazoiei buruzkoa (6. or.).
—Mozioa, Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Eusko Jaurlaritza premiatzen da Nafarroarenak soilik diren ezaugarri eta kateak erabili ez ditzan (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, istripuei buruz kanpinetan egindako azterketei buruzkoa (8. or.).
—Galdera, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko Foru Legearen ondorioz sortu diren lanpostuei buruzkoa (9. or.).
—Galdera, foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak egina, Allozko urtegia hustutzeari buruzkoa (10. or.).

- Tabakoaren Foru Planari eta Nafarroan dagoen tabakoaren kontsumoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna ([11. or.](#)).
- Eguesibarreko udal industrialdearen proiektua aldatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna ([12. or.](#)).
- Napalen hildako ardiei buruzko galdera, Foru Diputazioaren erantzuna ([13. or.](#)).

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostu bat, euskara itzultzaile lanpostu huts bat, oposizio-lehiaketaren bidez betetzekoa. Izendapen-proposamena ([14. or.](#)).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 9an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2000ko urriaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, ondoko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen: "Foru Lege proposamena, kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzkoa. Proposamen hori 2000ko ekainaren 12ko 49 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde auto-

nomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzko Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2000ko azaroaren 6an eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztzen ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2000ko urriaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

C saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Tabakoari buruzko Foru Plana

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000 urriaren 9an eginiko bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak, 2000ko irailaren 18ko Erabakiaren bidez, Tabakoari buruzko Foru Plana bidali dio Nafarroako Parlamentuari, bere iritzia eman dezan.

Horiek horrela, Eledunen Batzarrari entzun ondoren eta Erregelamenduko 197. artikularekin bat,

ERABAKI DA:

Lehena. Tabakoari buruzko Foru Plana tramitera onartzea.

Bigarrena. Hari buruzko iritzia Osasun Batzordeak emanen duela xedatzea.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko urriaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

(Oharra: Planaren testua foru parlamentari jaun-andreen eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

Nafarroako Gobernuaren jakinarazpena, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2000 urteko eztabaida egin dadin

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000 urriaren 9an eginiko bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Lehena. Biltzarreko Erregelamenduko 195. artikulua xedatutakoari jarraituz, Nafarroako Gobernuaren jakinarazpena, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2000 urteko eztabaida egin dadin, tramitera onartzea, Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko urriaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Gobernuaren jakinarazpena, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2000 urteko eztabaida egin dadin'

Urriaren 2ko Gobernu Kontseiluak erabaki zuen Nafarroako Parlamentuari eskatzea Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaida egiteko. Eztabaida horretarako eskema bat ere erantsi zitzaion eskariari; hain zuzen ere, haren berri eman nahi diegu foru parlamentari jaun-andreei idatzi honen bitartez.

Eztabaida honi bidea ematearren Parlamentuko Erregelamendua aldatu eta hauxe da Nafarroa-

ko Gobernuak honelako eztabaida bat proposatzen duen lehenbiziko aldia. Gobernuak uste du Parlamentuan informazioa ematea eta eztabaidatzea direla Nafarroako oraingo egoerari, bilakaerari eta etorkizuneko proiektuei buruzko goitik beherako gogoeta bat egiteko tresna demokratikorik eraginkorrenak.

Egokia dirudi eztabaida orain egitea, Erregelamenduz ezarritako betebeharrak harantzago, Aurrekontuei buruzko Legearen eztabaida eta Autonomien Egoerari buruzko Estatuko eztabaida egin baino lehen.

Gobernuaren kudeaketaz gainera, Nafarroaren garapen ekonomiko eta sozialaren prozesuan - gure gizartea egituratzen duten erakundeak eta haien ordezkari diren Parlamentuko indar politikoen erabiliz- nafarrek daukaten jarrera aktibo eta eraikitzailea islatu beharko luke eztabaidak.

Izan ere, Foru Komunitatearen egoera ez da bere herritarren, erakundearen eta antolamenduen egoera baizik. Enpleguaren bilakaerak, errenta-mailak, hazkunde ekonomikoak eta jardueraren hazkundeak balantze positiboa agertzen dute, zalantzarik gabe. Gauza bera esan dezakegu herritar behartsuenen gizarte- ongizatearen arloan lortu diren aurrerapauso sozialei buruz.

Bilakaera hau gogoan, eztabaidak, zalantzarik gabe, defizitak agerraraziko ditu, eta haiek adostasun demokratikorik handiena bildu eta egungo eta etorkizuneko jarduera politikoen ildoan ezarriko duten erabaki proposamenetan jaso beharko dira.

Nafarroa Autonomien Estatuko erreferentzia politikoko gune bat da. Daukan autogobernu mailak eta teknologia berrien, kulturaren, kalitatezko turismoaren eta naturarekiko eta inguruarekiko errespetuaren alde egin duen apustuak gure garapena era jasangarri eta harmoniatsuan bideratzeko autobidea izan behar dute.

Bide azpiegiturak, azpiegitura hidraulikoak, nekazaritzakoak, kulturalak, teknologikoak, energia arlokoak eta osasun nahiz gizarte arlokoak kohesioz planifikatu behar dira, ikuspegi sozial eta ekonomikotik.

Aipamen berezia behar du elkarbizitza bake-tsuari, askatasunen bermeari eta indarkeria eta terrorismoa errefusatzeari buruzko kapituluak. Ezin dugu alde batera utzi gure gizarteak jasan behar duen gaitz horri buruz Parlamentuan eztabaidatzeko aukera, indarkeria errotik erauzteko eta nafarren borondatea ordezkatzeko duen erakunde honetan finkatuta uzteko askatasunaren, bakearen, elkarbizitzaren eta demokraziaren alde hartutako erabakia, indarkeria-adierazpen guztiak errefusatuta.

Epe laburrean, 2001. urteko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrei buruzko proiektua aurkeztuko dugu Parlamentuan, eta ahal den eta adostasun politiko eta sozial zabalena lortzen saiatuko gara, nafarren bizi-kalitatea hobea izan dadin lortzeko eta gure komunitatearen proiektzioa sendotzeko.

Bi helburu horiek erdiesteko gure arreta eta ahalegin guztiak bideratu beharko ditugu, elkarbizitzaren bidez, LORAFNA garatuz eta guztiok Nafarroarekin daukagun konpromisoak betez.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Unibertsitate Publikoko tasetan ehunekotan egin daitekeen igoerarik handiena egiteko arrazoiei buruzkoa

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Unibertsitate Publikoko tasetan ehunekotan egin daitekeen igoerarik handiena egiteko arrazoiei buruzko jabeldura aurkeztu du.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 9an egindako bilkuran, jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko urriaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

JABELDURAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduak xedaturikoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari:

Aurrekariak

Nafarroako Gobernuak, ekainaren 19ko 221/2000 Foru Dekretuaren bitartez –2000ko uztailaren 19ko 87. NAO-n argitaratua–, Nafarroako Unibertsitate Publikoan 2000/2001 ikasturteko titulu ofizialak eskuratzeko zerbitzu akademiko unibertsitarioak eta gainontzeko eskubideak emateagatik ordaindu beharreko prezioak finkatu zituen.

NUPeKo tasak aurreko ikasturtearekiko %5 igotzea aurreikusten du aipaturiko dekretuak, urte-tik urterako KPlaren %2 gorago kokatuz, eta Unibertsitateen Kontseiluak baimenduriko gehienekoa da; aipaturiko Kontseiluak prezio horiek %3 eta 5 bitartean gehitzea erabaki zuen 2000ko maiatzaren 17an.

Nafarroako Gobernuak, prezio-igoerarako baimendutako ehunekorik handiena aplikatzea erabaki duenez, ikasturte honetan zehar ikasle bakoitzak gehiago ordaindu beharko du –5.000 eta 7.000 pezeta bitartean– egiten dituen ikasketen arabera.

Gogorarazi behar da matrikula-prezioaren igoera hori azken urteotan izan diren beste hauen gain gertatu dela:

– %6, 1996-1997 ikasturtean.

– %4,5, 1997-1998 ikasturtean.

– %3, 1998-1999 ikasturtean.

– %2,4, 1999-2000 ikasturtean.

Hau da, azken bost urteotan, NUPeko matrikularen igoera 19.275 pezetakoa izan da, lizentziatura eta diplomaturei dagokienez, eta 27.675 pezetakoa, ingeniariaren eta erizaintzaren kasuan.

Etengabeko igoeren aldeko politika horri esker, NUPek, gaur egun, Espainiako Estatu osoko Unibertsitate Publikorik garestiena izatea du ohore kaskar. Egoera hori xamurtzen ahalegindu beharrean, Nafarroako Gobernuak tasak igotzea erabaki du, ezarritako neurriak apalenean ez, Unibertsitateen Kontseiluak baimendutako gehienekoa baizik.

Gauza nabaria da politika hori Nafarroako errentarik baxuenak dauzkaten gizarte-sektoreen kalterako dela, eta zuzenean erasotzen diola NUPa zerbitzu publiko gisa hartzen duen ikusmoldeari; halaber, auzitan jartzen du –edo, gutxienez, oztopatu egiten du– herritar orok hezkuntzarako duen eskubidea.

Proposamena

Arrazoi horiek direla-eta, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuari jabeldura egitea proposatzen du, Biltzarraren Osoko Bilkuran ager dezan zergatik aplikatu duen, Nafarroako Unibertsitate Publikoko tasak igotzean, 2000-2001 ikasturterako baimendutako ehunekorik handiena.

Iruñean, 2000ko urriaren 5ean

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritza premiatzen da Nafarroarenak soilik diren ezaugarri eta kateak erabili ez ditzan

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritza premiatzen da Nafarroarenak soilik diren ezaugarri eta kateak erabili ez ditzan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratadain agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko urriaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Parlamentuko Unión del Pueblo Navarro (UPN) Parlamentuko Taldeko eledun Alberto Catalán Higuera sek, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Nafarroako kateak Ajuria Enea jauregiko balkoi nagusian dagoen armarran daudela-eta aurkeztutako parlamentu-ekimen bati erantzunez, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) gobernuak aitortu zuen ez zuela Nafarroako kateak handik kentzeko asmorik.

Armarri horrek oraindik ere Nafarroako kateak dauzka, eta hartara Nafarroako herriaren borondatea, Konstituzio Auzitegiko 1985eko epaia eta gero auzitegi berak egin zuen epai horren errekeirimendua ez dira betetzen ari.

Lehendakariorde Zenarruzabeitia andreak erantzun zuen Gobernua “pixkanaka ari dela betetzen epai hori”, eta “Gobernuak ez zuela aurreikusten Ajuria Enea jauregian birmoldaketa obrarik egitea” eta, beraz, balkoi nagusiko armarraria aldatzea.

Lehendakariorde andrearen erantzuna onartezina da eta probokazio bat eta inteligentziarako irain bat da. Ez dago justifikaziorik ez aitzakiarik horretarako. Nafarroako herriaren sentimendua ezin da gutxietsi halako jokaerekin, Nafarroako nortasunaren aurkako eraso zuzena eta nafarren borondatearekiko errespetu faltaren erakusle baitira.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Gorteek erabaki dute:

1. Nafarroako kate eta ikur eskusiboak Eusko Jaurlaritzak erabil ditzan arbuizatea.

2. Salatzea Nafarroari dagokion guztia Eusko Jaurlaritzak bere egiten duela, bere erkidegoko zati bat balitz bezala, eta sistematikoki erabiltzen duela, bereziki ikastetxeetako material didaktiko, komunikabide eta abarren bitartez. Jokaera horrek ernegazioa, amorrua eta sumindura areagotzea baizik ez du egiten Nafarroan, eta oztopoa da auzo diren bi erkidegoren artean egon behar lukeen harreman egokia izateko.

3. EAEko Gobernuari eskatzea berehala erretiraditzan kateak halakorik dauzkaten Euskadiko armarrietatik, Konstituzio Auzitegiaren 1985eko epaia bete dezan eta Nafarroako errealtate instituzionala goitik behera errespetat dezan komunikabide publikoetan.

4. Erabaki hau igortzea Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari.

Iruñean, 2000ko urriaren 2an

Eleduna: Alberto Catalán Higuera s

F saila:
GALDERAK

Istripuei buruz kanpinetan egindako azterketei buruzko galdera*FORU PARLAMENTARI JOSE M^a AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak istripuei buruz kanpinetan egindako azterketei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin dio Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariari, idatziz erantzun dezan.

Azken urte hauetan, komunikabideetan ikusi ahal izan dugu erauntsi baten ondorioz Europa aldeko kanpin batean nolako hondamendia gertatu den, leku okerrean kokatuta egotearen ondorioz.

Gogoan hartuta Biescasko kanpinean gertatu zen istripu larria, neurriak hartu ziren autonomia

erkidego askotan horrelako gertakari tamalgarririk berriz ez gertatzeko.

Gure komunitatean, Gobernuak, Departamentu batzuen parte-hartzearekin, Nafarroan lan egiten duten kanpinetako segurtasunari buruzko azterlan bat egin zuen.

Kontuan hartu behar da alojamendu turistikoaren eskaintzan garrantzi handia dutela kanpinek, eta horixe dela zenbait alderditan enplegua sortzen duten enpresa-jarduera gutxietako bat.

1. Nafarroako zein kanpinetan egin zuen Gobernuak istripuak izateko eta urpean gelditzeko arriskuari buruzko azterlan hura?

2. Zer egitea aurreikusi zen kanpin bakoitzean eta zein zen kostua?

3. Aurreikusitako jardueretatik zenbat bete dira eta nolako laguntza eman du Gobernuak horretarako?

4. Zein da Gobernuak aurreikusi duen egutegia oraindik egin ez direnak egiteko?

5. Zenbateko aurrekontua du Gobernuak aipatu azterlanean aipaturiko ekintza guztiak egin daitezen bultzatzeko?

Iruñean, 2000ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko Foru Legearen ondorioz sortu diren lanpostuei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE M^a AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak istripuei buruz 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko Foru Legearen ondorioz sortu diren lanpostuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin dio Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Parlamentuak 1999ko otsailaren hamaikan, Lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

1. Zenbat eta zein lanpostu sortu dira aipatu legeko hirugarren artikuluan jasotako neurrien babesean?

2. Zein enplegu eskaintza publikotan bete da lege horretako hirugarren artikulua?

3. Zein sustapen jarduera egin ditu Nafarroako Gobernuak kapitalaren partaidetzaren gehiengoa daukan enpresetan? Jarduerak eta jarduera horiek gauzatu diren enpresak aipatzea nahi dugu.

4. Lanaldia antolatu eta murrizteko zein jarduera, zein emaitzarekin eta zein enpresatan sustatu ditu Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko produkzio eta zerbitzu sektore ezberdinetan, 6/1999 Foru Legearen bosgarren artikulua betetzeko?

Iruñean, 2000ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Allozko urtegia hustutzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FERNANDO VIEDMA MOLERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko urriaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak Allozko urtegia hustutzeari buruz egindako galderaren biderape-na onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko urriaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parla-mentuko Taldeko foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak, Biltzarreko Erregelamen-duko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako-aren babesean, galdera egin dio Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kon-teilariari Allozko urtegia husteari buruz. Galdegi-leak idatziz erantzutea eskatu du.

Joan den uztaillean, Allozko urtegia husten hasi zen Ebroko Ur Konfederazioa. Aurreikusia zuten urtarrilean guztiz hustea. Beste hustuketa honek helburu du, Ebroko Ur Konfederazioaren iritziz, obra batzuk egitea uharkaren hondoan dagoen hustubideko ahoko sareta aldatzea, harri-rik sartu ez eta ez dadin trabatu.

Ebroko Ur Konfederazioak iragarri du "espero dutela hustubideko obrak aurrean bukatzea, eta heldu den urtean beste lan batzuk eginen dituzte-la ureztatzeko hartuneak hornitzen dituzten hodie-tan".

Beste hustuketa honekin, lau izanen dira azken bost urteetan egindakoak, eta halakoak egiteak beti kalte handia egiten dute ingurunean. Hustuketa hauen helburua izan da, da eta izanen da beti Allozko urtegian obrak egitea, obra amai-gabeak antza. Halakorik ezin da ametitu herrialde garatu batean, lanak behin eta berriz geroko uzten direlako, plangintzarik txikiena ere ez dago-elako erabateko konponketari ekiteko eta abar, kontuan harturik, batez ere, ohikoa dela horrek ingurunean kalte izugarria egitea; esate baterako, arrainak hiltzea. Azkoiengo ureztatzaileek berek ere, beren lehendakariaren ahotik, baieztatu izan dute Ebroko Ur Konfederazioak arduragabekeria teknikoren batzuk egin izan dituela.

1. Nola bermatuko du Ebroko Ur Konfederazio-ak Salado ibaiaren ur-emari ekologikoa, kontuan harturik ur-hornidurarako bide bakarra orain hus-tuko den urtegiko gainezkabidea dela?

2. Zenbat uste da iraunen dutela urtegiko hon-doa husteko lanek?

3. Lan hauetan eta Ebroko Ur Konfederazioak heldu den urtean egiteko asmo dituenetan, aztertu eta planteatu al da aurreneurriren bat hartzea urtegiaren inguruneke eta Salado ibaiko balizko kalte ekologikoak eta ingurunekeak saihesteko?

4. Noiz aurreikusi du Ebroko Ur Konfederazio-ak ingurunea leheneratzeko lanak eta Salado ibaian eta Allozen lanak hastea?

Iruñean, 2000ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: Fernando Viedma Molero

Tabakoaren Foru Planari eta Nafarroan dagoen tabakoaren kontsumoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak Tabakoaren Foru Planari eta Nafarroan dagoen tabakoaren kontsumoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 6ko 69 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, 2000ko abuztuaren 23an, galdera bat egin du Gobernuak tabakoaren inguruan egiten duenaren zenbait alderdiri buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Foru Gobernuaren Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren dokumentazioa ikusirik, tabakoaren bidez 1998 eta 1999. urteetan bildutako zerga dirusarreraren datuak eman ditzakegu. Ez, ordea, 1997an bildutakoenak, Nafarroak ez zuelako kudeatzen produktu horren gaineko zerga Hitzarmen Ekonomikoaren Eguneratze eta Aldatzea egin arte, hau da, 1997ko urriaren 28an.

Kontu Orokorretan ageri diren datuen arabera, tabakoaren gaineko zerga bereziagatik 1998ko ekitaldian bildutako dirusarrerak 10.153.742.363 pezeta izan ziren, eta 1999. urtean, berriz, 10.490.255.707 pezeta. Nafarroako 2000ko Aurrekontu Orokorretan kontzeptu horren dirusarrerak 10.884.000.000 pezeta izanen direla dago aurreikusirik.

Hemendik gutxira ailegatuko da Parlamentura Tabakoaren kontrako foru plana; bertan biltzen dira, diagnosiaren zatian, tabakoari loturiko gaisotasun eta hilkortasunaren datu orokorrak, eta halaber, berriki eginiko "Tabakomenpekotasuna Nafarroan" izeneko azterlanaren kostuak. Proposamenen zatian planteatzen da "tabakoaren kontsumoari loturiko gaisotasun eta hilkortasun azterlana eguneratzea, bai eta haren kostua ere, osasunari nola gizarteari dagokiona".

Gaur egun eskaini ahal ditugun datuak koordinatu horietan daude, eta Planak berak dioen

bezala, "datu hauek 90eko hamarkadaren hasierakoak badira ere, gaur egun altuagoak direla pentsatu behar dugu, emakume asko hasi baita tabakoa kontsumitzen, eta horren eragina osasunean 20-40 urtekin azaleratzen da".

Bestalde, ez genuke gutxietsi beharko kostu emozionala, dudarik gabe zeharkako ondorio ekonomikoak dituelako, izan ere, tabakoak eragiten dituen gaisotasunetako askok ekartzen dituzten minusbalotasunengatik kargak ere hor daude, eta zaila da horiek dirutan baloratzea.

Oraindik oraingo azterlan baten arabera, tabakomenpekotasunaren girzate kostua, Nafarroan, 7.000 milioi pezetakoa da urtean, zuzeneko kostuak eta zenbatetsi daitezkeen zeharkako kostuak barne. Kalkulatu daitezkeen osasun kostu bereziek, urtean, 1.350 milioi pezeta egiten dute ospitaleko laguntzan eta 700 milioi farmaziako gastuetan. Ezinezkoa da zenbatestea Anbulatorioetako Osasun Laguntza Espezializatua eta Lehen Osasun Laguntza direla eta izaten diren kostuak.

Era berean, azterlanak adierazten du "Nafarroan, batez beste urtean, tabakomenpekotasunaren eraginez 600 pertsona inguru hiltzen dira garaiz aurretik, hau da, hildako guztien % 15. Alderaturik, hildako gehien eragin zituzten gaisotasunak hauexek izan zirela ikus dezakegu:

Kardiopatia iskemikoa	161 hildako
Birika-bronkioetako minbizia	127 hildako
Biriketako eritasun	
butxatzaile kronikoa	120 hildako
Burmuineko odol-hodietako	
istripu akutua	79 hildako

Horrez gain, Planak aipatzen du beharrezkoa dela neurriak hartzea zerga etekinei dagokienez, baina Gobernuak hasiera batean onetsitako agiri horretan ez da neurri zehatzik ezarri, Planak bete behar duen tramitazioan zehar, Nafarroako Gobernuan nola Parlamentuan bertan, egin beharko dela iritzita.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko irailaren 8an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Eguesibarreko udal industrialdearen proiektua aldatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Andrés Bastera Layana jaunak Eguesibarreko udal industrialdearen proiektua aldatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 6ko 69 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Andrés Bastera Layana jaunak galdera egin du Eguesibarreko udal industrialdearen inguruko zenbait gairi buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak ea Eguesko Udalak asmorik duen Eguesko Udal Industrialdearen proiektua aldatzeko?

Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusian ez da tramitatzen ari Eguestik bidalitako mota horretako hirigintza espedienterik.

2.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak ea Eguesko Udalak asmorik duen Eguesko Udal Industrialderako lurak desjabetzeko sistema aldatu eta konpentsaziokoa ezartzeko?

Udal horrek ez dio ezer jakinarazi Gobernuari gai horri buruz.

3.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak ea VLV enpresak Eguesko Udal Industrialderako lurak salerosteko aukerarik duen?

Lurak erosteko aukerak ez zaizkio jakinarazten Nafarroako Gobernuari, ez baitago horretarako betebeharrorokorrik, beraz ez dakigu ezer horri buruz.

4.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak ea Eguesko Udal Industrialderako lurri buruzko txosten teknikorik dagoen?

Ez bereziki.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko irailaren 19an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

Napalen hildako ardiei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Andrés Bastera Layana jaunak Napalen hildako ardiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 6ko 69 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko irailaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Andrés Bastera Layana jaunak galdera bat egin du Napalen hildako ardiei buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

1.- Bai.

2.- “Scrapie” edo “gerrialdeko prurigoa” izeneko gaisotasuna deklaratzera Espainian baizik ez gaude behartuta. Beraz, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari egin zitzaion jakinarazpen ofiziala.

3.- Gaisotasuna badela susmatuta, teknikari albaitariak txostena egin zuen eta, ondoren, Epizootiologia Bulegoko buruak ikuskapena egin zuen, eta susmoa berretsi. Ondoren, Abere Osasuneko Ataleko buruari eta Abeltzaintzako Zerbitzuko zuzendariari igorri zien txostena. Abeltzaintza Zerbitzuko zuzendariak, bere aldetik, txostena

igorri zion Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendari nagusiari eta honek, amaitzeko, 2000ko ekainaren 9ko Ebazpena eman zuen, behin-behineko eta kautelazko neurriak hartzeko.

4.-

a) Albaitaritzako zerbitzuen egiaztapen eta kontrol bisitak egitea.

b) Ustiategiko azienda bertatik mugitzeko debekua ezartzea.

c) Inkesta epizootiologikoa egitea.

d) Artalde osoa hiltzea.

e) Laginak hartu eta zegokion laborategira bidaltzea.

f) Ardi hilen suntsipen higienikoa.

g) Animali-pentsuak, irinak eta elikagaiak suntsitzea.

h) Ustiategiaren lokalak garbitu eta desinfektatzea.

i) Gaisotasunaren jarraipenerako erregistro liburua erredaktatzea.

j) Nahitaez hiltzeagatiko kalteordaina.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko irailaren 19an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

G saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostu bat, euskara itzultzaile lanpostu huts bat, oposizio-lehiaketaren bidez betetzekoa

Izendapen-proposamena

2000ko urriaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Zerbitzu Orokorretako buruak txostena egin du Pello Agirre Sarasola jaunak euskara itzultzaile lanpostuari egitatez -ezarritako epean jabetza hartu ez duelako- uko egin izanari buruz. Hura izendatzeko erabakia 2000ko abuztuaren 28an hartu zuen Biltzarreko Mahaiak, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile lanpostu huts bat betetzeko 1999ko abenduaren 27an Mahaiak hartutako erabakiz deitu zen oposizio-lehiaketaren ondorioz (1999ko abenduaren 31ko 33. NPAO eta 2000ko urtarrilaren 17ko 7. NAO). Horrenbestez, aipatu deialdiko 7. oinarrian ezarritakoaren babesean, hauxe erabaki da:

1. Pello Agirre Sarasola jaunak euskara itzultzaile lanpostu bati egitatez uko egin izanaz jakitun dagoela adieraztea.

2. Ander Irizar Apaolaza jauna Nafarroako Parlamentuko funtzionario, euskara itzultzaile, izenda dadin proposatzea, bera baita aipatu oposizio-lehiaketako gaitutuen zerrendako hurrengo postuan dagoena.

3. Ezartzea, aipatu deialdiko 7. oinarrian ezarritakoaren babesean, deialdiko 7.2 oinarrian aipatzen den dokumentazio guztia aurkeztu beharko duela, erabaki hau jakinarazten zaionetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko urriaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefona *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	---